

...eta KITTO!

767 zkia. 2011-VI-10

ASTEKARIA



EUSKARAZ BIZI! Hori bai goooooooooola!

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



Belaustegi Baserria

JATETXEA

Bere 12. urteurrenean

- Etxeko aperitiboa.
- Foie-moussea Módena eta konpotarekin.
- Onddo-bricka eta bere saltsa.
- Madagaskarreko otarrainxkak plantxan.
- Legatza txakoli eta azafrai saltsarekin.
- Ahate-magreta gerezi gazi-gozoarekin.
- Belaustegi postrea.
- Kafea eta etxeko ardoa.

Prezioa: 38'50 euro + BEZ



ELGOIBARKO San Miguel gainean



Informazioa eta erreserbak:

Tel. 943 74 31 02

www.belaustegi.com



Portxe-jardineko
jaima arabiarrean
bazkaldu eta afaltzeko
AUKERA

...eta kitto!-ren
itzulpen
zerbitzua

**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,**
euskaratik
gaztelera,
gaztelertik
euskara,
eta ingelestik
euskara.



- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.



elkartea@etakitto.com



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi, Ander Salegi,

E. Belar eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Asier Sarasua

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-
dikarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

HAUNDIKI.- Aberastasunagatik eragina daukana, jauntxo. "Herriko haundiki guztiak batu ziran autua aitzeko". Haundiki izan nahian edo haundikien inguruan ibiltzen dena. "Beti izan zan haundikixa, zerbait ziran guztien ondoren".
HAUNDIÑA.- Haundiena. "Haundiña be, hamar arruak hartzen dabena".
HAUNDITXO.- Nahikua haundi, haundiegia. "Aukeran haunditxua, daukagun etxia".

ESKUTITZAK

AGURRAREN ORDUA

Joan den zapatuan, hamalau urtez jarraian ekainaren lehen zapatu guztietan eta behin ere huts egin bari, agur esateko ordua iritsi zitzaigun: gure azken Olinpiadak izan genituen.

Egun zoragarri hori igarotzen lagundu ziguten ikasle, irakasle, guraso, sukaldari, garbitzaile eta bertaratutako guztiei eskertu nahi diegu, bihotz-bihotzez, inoiz ahaztuko ez dugun sasoi horretan aurrera egiten lagundu digutelako, eurak gabe ezinezkoak izango lirakeelako gure bizitzako une atsegin horiek gure oroitzapenetan izatea.

Eta benetan espero dugu Olinpiada hauek ospatzen jarraitzea urte askotan, ume guztiak oso zoriontsu egiten baititu, euskal giroan murgilduta eta gure hizkuntza hau maitatzen erakutsiz -guri erakutsi ziguten bezala-.

Baina, nahiz eta bagoazen, betiko gogoratuko dugu gure Argitxo, euskaldunon ingeru zaindari hura, eta berak lapurtu zizkigun irribarre guzti horiek.

Eskerrik asko eta laster arte, Ikastola!

MOGELEKO BETERANOAK

EIBARKO UNI-AN ERE, SELEKTIBITATEARI EZI

Jendez beteta zegoen Eibarko unibertsitatea goizeko lehen ordurako. Jendea urduri bezain haserre! Irakurketa zabalduz aritu gara jendearen artean ahoz aho eta agerikoa zen selektibitatearen aurkakotasuna. Soinean pegata jantzita sartu dira azterketa egitera!

Horrez gain, inguruak apainduta agertu dira, pankarta koloretsu eta irudimentsuekin: Irakasle autoritarioa "History of Spain" idatziz edota selektibitatea-

ri ezezkoa esateko ditugun arrazoiak adierazten zituena muralarekin!

Azterketa hasi aurretiko minutuetan atezainekin liskarra izan da, pegatinekin ingurua "zikintzen" ari ginela aitzaki gisa ipiniz. Baina azterketa basati honi ezezkoa esateko ditugun arrazoi guztien indarrarekin salaketa lana egiten jarraitu dugu gogotsu!!!

IKASLE ABERTZALEAK

asteka

HEMEROTEKA

esaldia

"Animaliek ere emozioen eta moralaren arabera jokatzen dute. Sena eta pentsamendu arrazionala dituzte: senaz jarduteko, jokabide moralak izan dezakete atzean, gai direlako errukia eta beste hainbat sentipen izateko. Bestalde, animalien eskubideen babeserako gurekin antz gehien dutelako tximinoetan zentratzea harrokeria da gure aldetik"

(Mark Rowlands, *Bika eta Filosofia*n doktorea)

"Itsasoak, piszifaktorietatik kanpo, ez du etorkizunik. Azken hauetan gauza txundigarriak lortu daitezke eta osasuntsuagoak. Gaur egun ezin dira arrain mota guztiak hazi, baina ezin dugu ahaztu hegaluzeak, ezpata-arrainak eta beste espezie batzuk beruna pilotzen dutela euren okelean; piszifaktorietan berne handiagoga lortu dezakegu"


(Luis Jiménez de Aberasturi, "El mar de los vascos"-en egilea)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

ALKATIA IZENDATZEKO PLENUA

Bixar osatuko da legegintzaldi barrirako Udalbatza, 11.00etan udaletxeko pleno aretuan hasiko dan osoko bilkuan. Bertan izendatuko dittue alkattia eta ziñegotzixak. Ezustekorik egon ezian, ixa segurua da jarduneko alkattia dan Miguel de los Toyos atzera be alkate izendatzia. Hori bestela izateko aukera bakarria Bildu-EAJ-PP alderdixen arteko paktua egotia litzake.

KULTURALA EGUAZTENIAN ZABALIK

Eguaztenian zabalduko dabe Kultu tabernia, azken hiliotan obren eragin ez itxita egon ostian. Tabernia zabaltziarekin batera, Topalekuan Eguen Zuri lehiaketako argazki erakusketia inaugurauko dabe. Arrate Kultur Elkartiak, bestalde, ekaiñaren 21erako preparau daben bertso saiarekin ekingo detsa programa ziñuari.

ESKOLA TXIKIXEN JAIXA

Domekan, ekaiñaren 12-xan Gipuzkoako Eskola Txikixen jaixa hartuko dau Abaltzisketak. "Herri eta auzo txikixak bizirik" izenburuarekin, egun osorako programaziñua preparau dabe, 10.30xetan hasitta. Goizian umiendako jolasak egongo dira eta bazkal ostian, 16.30xetan Pirritx eta Porrotxen emanaldixa eta malabarismua eskinduko dittue.

Ikasturteari agur Esperientzia Eskolan

ESPERIENTZIA ESKOLAREN 7. URTIA AMAITTU BARRI DABE ETA AURREKO BARI-XAKUAN ARMERIXA ESKOLAK HARTU EBAN EKITALDIXAN diplomia jaso eben ikasturtia amaittu daben 20 ikasliak. Aurtengua, gaiñera, berezixa izan da, Ikasten ikasle ohien alkartiaren bittartez eurak autogestionatu dabelako eskolia. Ekitaldixan, bestiak beste, Jose Luis Elortza Mujika Eusko Jaurlaritzako Etengabe-ko Hezkuntzako arduraduna, Juan Angel Balbas Debegesako zuzendarixa, Ainhoa Zenigaonandia Ego-Gaingo Kutxako zuzendarixa, Miguel De los Toyos alkattia eta Jose Antonio Villabella Ikasteneko zuzendarixak hartu eben parte eta danak ikasliak egindako biharra- ren garrantzixa azpimarratu



eben euren interbenziñuetan. Ekitaldixaren amaierian Juliana Lopez eta Marivi Mutiloa ikasliak egiñ eben berba: *"Aurretik genittuan itxaropenak gaintitu egin dira eta arrakasta biribilla izan da. Gai interesgarrixak landu dittugu eta hizlari bikai-*

ñak etorri jakuz ikasturtian zihar". Barre asko egin badabe be, biharra egitteko orduan txintxo jardun dabela gaiñeratu eben. Taldiaren erretratua etara aurretik, ikasliak *"lokal txiki baten premiñia"* dakela gogoratu zetsen alkatiari.

4.100 kilo janari Saharako errefuxiatuendako

TINDUF-EN (ALJERIA) ERREFUXIAUTA BIZI DIRAN SAHARAUIXERI LAGUNTZEKO ELIKAGAI-XAK JASOTZEKO KANPAIÑIA AMAITTUTA, arduradunak Eibar eta Elgoibarko herritarreri euren eskuzabaltasuna eskertu nahi detse eta, horrekin batera, eskerrak emon nahi detsez kanpamendueta



bidaltzeko gauzak jasotzen laguntasuna emoten daben denderi, produkto higienikuak eta sendagaixak batzen lagundu daben botikeri, ikastetxieri, komunikabidieri, Eibarko Udaleko brigadiari, lokala lagatzen daben Industrias Eve-ri eta produktuak sailkatzen eta kajetan gordetzen dittuen boluntariuxeri. Amaittu barri daben kanpaiñiari esker 4.100 kilo elikagai, 535 kilo ojale edo pardel eta 115 kilo konpresa batu dittue eta, agindutakuari jarraituta, horrek danak errefuxiatuerei emongo detsez.

Ikastolakuak alkarrekin 26 urteren ostian

ZAPATUAN 1977-TIK 1985-ERA BITTARTIAN IKASTOLAKO OHO TALDIA OSATU ebenetako asko atzera be alkartu ziran, ikastolia laga ebenetik 26 urte pasau ostian. Erretratua aldizkari- xan kaleratzeko bialdu deskun Asier Aranzabalek azaldutakuari jarraituta, "ikastolako talde honek ez eban iñoiz kokaleku fijo- rik euki: lehelengo mailla Itzioko ikastetxian egin genduan, bigarrena Iturburun (estrenau zanian), 3. mailla udaletxeko ikasgela batian, 4. eta 5. maillak Urkiko ikastetxian eta, azkenik, 6 ,7 eta 8. maillak Alfako ikastetxian. Emoziñoz eta oroitzapenez beteta- ko eguna izan zan zapatukua eta bertara gure lehelengo irakas- lia izan zan Pili Zubizarreta juañ zan, gu agurtzera".





EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK

**Duten
garrantziaz
jabetzeko,
faltan izan arte
itxoiten dugu
maiz**

asteko
522
datua

erabiltzaille dagoz erregistrauta duaneko Wifi zerbitzurako orrixan. Urtarrillian 270 erabiltzaille eguazen, martxorako 399 erabiltzailerera aillegau zan eta hillerik hille gorantza doiaz erabiltzailiak. Apirillian 3.000 sesiñotik gora egin ziran.

ENEKO ANDUEZA UDALEKO HIRIGINTZA ZIÑEGOTZIXAK ASTE HONETAN BERTAN JASO DAU
Gipuzkoako Batzar Nagusietan bertako kide modura dagokixon akreditaziñua. Batzar Nagusixak dittuan 51 batzarkidien artian, Euskal Sozialistak osatzen dabən 10 laguneko taldian jardungo dau Anduezak. 1979xan jaixotako eibartarra Zientzia Politikueta lizentziaua da eta, ziñegotzixa izatiaz gaiñ, Eibarko Sozialisten idazkari nagusixa be bada.



Miguel Diegok Kirolegixan egin dau biharra Patronatua sortu zanetik. / J.L.G.

Anduezak batzarkide kargua hartu dau



Miguel Diego hil da

MIGUEL DIEGO EIBARKO KIROL PATRONATUKO ZUZENDARIXA DOMEKAN HIL ZAN, DONOSTIAN, 63 urterekin. Famelixakuak eta lagunak martitzenian emon zetsen azken agurra, San Andres elizan ospatu zan hille-ta elizkizunian. Miguel Diegok lotura haundixa izan eban bizi guztian kirol munduarekin eta, bestiak beste, luza-ruan J.D. Arrate eskubaloi taldiaren entrenatzaillia izan zan, talde hori Oho-rezko Maillako goi postuetan jardun eban urtietan. Geroz, behin Kirol Patronatua sortuta, bertako zuzendari jardun eban bere sorreratik.

Bilduren billeria

DATORREN EGUENERAKO, HILLAREN 16-RAKO BILLERIA DEITTU DABE BILDUKUAK, 20.00etan udaletxian (pleno aretuan). Herrittar guztiendako zabalik egongo dan billeran datorren legegintzaldirako antolatuko dittuen lan talde ezberdiñen gaiñeko informa-ziñua emoteko asmua dake: *“Gure helburua herrittarron bizitzan eragiña daken esparruak jorratuko dittuen lan taldiak sortzia da. Lan talde bakotxak bere alorrian herrixak dittuan premiñak aztertu eta eztabaidatuko dittu, proposamen zihatzaiko sortu eta Udalera eruateko”.*



Atzegikuak famelixen topagunia ospatu eben



DOMEKAN ALKARTU ZIRAN ATZEGI ADIMEN URRITASUNA DAKENEN ALKARTUAKUAK, famelixen topaguniaren 13. Ediziñuan. San Andres elizan mezia entzun ostian, Untzagan taldiaren argazkixa etara eta, jarraixan, Arrate hotelian bazkarixa euki eben. Bazkalostian, gaiñera, musikia eta hainbat sorpresa euki zittuen topaketara juandakuak.

Stitxes
bordatuak

Ibarkunetze 7
20800 Eibar
stitxes@yahoo.es

Ordutegia:
10:00etatik 1:00etara eta 4:30atik 8:00etara
Larumbatatan 10:00etatik 1:00etara

- Denetarik bordatzen dugu; amantalak, baberoak, eskuohialak...
- Opariak egiteko aproposak.
- Publizitatezko bordatuak.
- Bordatu pertsonalizatuak.
- Baditugu baita kamisetak, jarrak... zuk nahi duzun diseinuarekin.



Urtero legezn, paella lehiakiatik auzokide zein auzotik kanpo bizi diranak erakarri zittuan. Noiztik botatzen joko ardaua paelliarri? / MAIALEN BELAUSTEGI

Urkiko jaixak martxa betian

EZINHOBETO EMON EBEN ASTEBURUA URKIKUAK, AUZO-KO JAIXAK OSPATZEN. Eguraldixa lagun, programan jasotako guztiak ederto juan ziran eta, auzuan bizi diranak ez eze, beste auzuetatik jaixarekin bat egittera animau ziran beste asko be alkartu ziran Urki aldian.

Presidente barrixa daka Deparkelek

DEPARKEL DEBABARRENA PARKINSON ELKARTEAK ZAPATUAN EGIÑ EBAN URTEKO BATZARRA, alkarreak Ardantzan dakan egoitzan. Ekitaldixan, 2005ian alkartearen sorreratik presidente kargua bete daben Jesus Astigarragak errelebua pasau zetsan aurrerantzian alkarreko presidentia izango dan Jesus Artolazabal soraluzetarrari. Billeria amaituta, Azitañi erretegixan bazkarixa egiñ eben alkarreko kide zein lagunak.



1941ian jaixotakuen bazkarixa

AURREKO ASTEBURUAN ALKARTU ZIRAN ERRETRATUAN IKUSTEN DITUZUENAK ALKARREKIN BAZKALTZEKO. Aurtan 70 urte bete edo beteko dittuenak ederto emon eben eguna, Untzagan alkartu eta jarraixan Amañako Caserio tabernan egindako bazkarixan.

auzorik auzo



Bildosola txalet ingurua aldatzeko plana

Mekola itxurabarrizeko planarekin aurrera segitzen dabe udalian eta inguru osua atzera be ordenatzeko biharrezkuak diran pausuak emoten hasitta dagoz. Oin momentuan hutsik dagan Bildosola famelixaren txaletak betetzen daben terrenuan, Arrate Bidetik gertuen geratzen dan aldian etxe barrixak jasotzeko asmua dake Udalian eta Untzagatik gertuen geratzen dan tokixan, barriz, parkia egittia dake aurreikusitta. Horretarako, terrenearen jabiekin hartuemonetan jardun dabe eta, hitzartu dabenez, terrenearen zati bat erabillera publikorako emotia onartu dabe jabiak. Horrekin batera, San Andres fundaziñuak han inguruan dakan orube zati bat musutruk emotia onartu barri dau Udalbatzak. San Andresek emondako terrenearen balixua 89.000 eurokoa da eta Udalbatzian musutruk emotia erabagi bazan be, EAJ, Hamaikabat eta EB alderdixak abstenziñuaren bidia hartu eben botaziñuan, erabagixaren ondorioz fundaziño publikuaren patrimonixuak behera egingo dabelako.

eibar kaleka

Zezenbide kalia

Isasi zein Juan Gisasola kalietatik zezen plazarañi igotzen daben kalia da Zezenbide eta, kaliaren izenak argi lagatzen daben moduan, bertarañi zezenak egin biharreko ibilbidiari erreferentzia zuzen-zuzena egitten detsa kaliaren izenak.

Pegora kopurua: 9

Erroldatutakoak: 154





Euskal Autonomi Erkidegoko 230 herritan haurrak ezin zirela euskaraz inskribatu-eta, hainbat kexa zabaldu ziren orain dela hilabete bi. 2005eko ekainetik legez aitortutakoa betetzeko oztopoak daudela zioten bai gurasoek, eta baita Uemak (Udaleri Euskaldunen Mankomunitateak) eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak. Eibarren, aldiz, edozeinek du jaiotze, hiltze edo ezkontze inskripzioak euskeraz egiteko aukera, "2009an infoReg aplikazio informatikoa Eibarko epaitegian martxan jarri zenetik", dio Josune Urbieta Eibarko Epaitegiko euskara trebatzaileak, jendeak zerbitzua erabiltzera animatzen duen bitartean.

Eibarko epaitegian badago inskripzioak euskaraz egiteko aukera

Katalunia eta Galiziako epaitegietan inskripzioak beren berezko hizkuntzan egiteko aukera dute 2007tik. Nafarroan ere, foru erkidegoan berez eginda daude euskarazko hautua emateko urratsak. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan motelago joan da dena: 2008ko urtarrilaren 9an Eusko Jaurlaritzak eta Red.es erakunde publikoak urtebeteko lankidetzaren hitzarmena izenpetu zuten, inskripzioak euskaraz eta euskarazko euskarrian egiteko, baina aurre-rapausoak eskasak izan dira ordutik. 2008ko urrian Euskal Herriko hamalau barruti judizialeko erregistro nagusietan -tartean hiriburuetakoa daude- euskarazko hautua emateko urratsa egin zen; eta aurretik, martxoaren amaieran, proba pilotu batean sartu dituzte beste sei herri: Aretxabaleta, Lazkao, Zumarraga, Legazpi, Errenteria eta Ibarra. Horrek esan nahi du hogeitahiru herritan eskubidea bermatuta dagoela. Gainerakoei dagokionez, momentu honetan beste 70 udalerritan ipintzeko lanean dihardute bete-betean.

Baina Eibarren zortea dugu arlo horretan, hemen hasieratik ipini zelako martxan inskripzioak euskeraz egiteko programa. Hala ere, Josune Urbieta Eibarko barruti judizialeko euskara trebatzaileak bere kezka azaldu digu, "2009an, hasi eta berehala, jende gehiagok erabili zuelako zerbitzua gaur

egun baino"; kopuru zehatzetan murgildu barik ere, eskaera %10 gutxienez jaitsiko zela uste du berak. Harrigarria egiten zaio, gainera, gure herrian hori gertatzea "Bergaran eta Azpeitian, esaterako, jaioberrien erdiak edo euskaraz inskribitzen dituztenean eta eskaerak ere gora egin dutenean 2009tik 2010era". Hori dela-eta, udaleko euskara teknikariekin ere izan direla diosku Urbietak: "Badaude asmo batzuk, alde bietatik ere egokiak ikusi genituenak: euren web orrian aukeraren berri ematea aipatu zen, haurtzaindegietan diptiko antzerakoa zabaldu...".

Soluzio erraza eta egokiena

Aipatutako jarrera horren atzean, "ez jakitea eta beldurra egon daitezke". Herri-



tarrendako informazio guztia elebiduna izan arren gaur egun Eibarko epaitegietan, ohiturekin apurtzea askotan kosta egiten da hasieran eta, nahiz eta informatu, jendea askotan ez da egiten aukeraren jabe. Horrez gain, beldurra ere izan daiteke horrelako inskripzioak etorkizuneko erabiltzeko orduan: "Zerbitzu eroso da eta edonon erabiltzekoa. Justizia Ministeritzak liburu bereziak prestatu dizkigu ziurtagiriak automatikoki hizkuntza bietan sortzeko eta, horrela, edozein tramite dela-eta, Valladoliden, esaterako, eskatzen badizute gaztelaniazko ziurtagiria, InfoReg aplikazioaren bitartez gaztelaniaz ere inprima daiteke. Modu horretan, lehen sor zitazkeen arazoak ekiditen dira sistema honekin".

InfoReg programa erabiltzen dute inskripzio modalitate hori inplementatzeko, erraz erabiltzeko eta gerorako ere erraztasun handia eskaintzen duena. Umea euskaraz inskribatu nahi duen edozeinek eskatu dezake zerbitzu hori: "Eskatu lasai. Hemengo langileek prozesuaren nondik-norakoak argituko dizkio eta merezi du".

Bestela ere, ez da jaioberri askorik izaten gure inguruan azken aldirian, baina aukera izanda inskripzioak eta bestelako ziurtagiriak elebidun egiteko, zer hobea aukeraz baliatzea baino!


Maite Gastesi Uzkudun

(MAIDER GURE LANKIDEAREN AMATXI)

Maiatzaren 31n hil zen, 90 urterekin


Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi nahi diegu haren senide eta lagunei.

...eta kitto! Euskara Elkartea



Aurreko egunetan es dogu lagun euki baiña udia badator eta, horrekin batera hondartzen sasoia. Mutriku, Deba, Zumaia eta Getaria moduko herrixak eibartar asko hartzen dittue urteko sasoi beruenetarikuetan eta hillaren 15ian hasiko dabe hondartza sasoia. Gabardiña laga eta baiñujantzixa jantzi!

Zelan ikusten dozuz gure hondartzak?



FRANCISCO CID
77 urte
jubilaua

Debako hondartzia normala ikusten dot, hara juaten gara gehixen. Lehen Saturraranera juaten giñan, baiña nahiko irregularra da, parkiñaren egoeria ez da ona, hondarreko harrixak kendu biharo ziran... Debakuan hondarra oso goixan dago oin eta aparkamendu gehixago ipiñiko neuke.



MAITE GAMAZO
45 urte
irakaslia

Ondo daguazela esango neuke. Hobe izango litzake luziaguak izatia bertan pasiatzeko eta bueltaka ez ibiltzeko, baiña holan dira eta kitto. Ura garbi egoten da normalian, gaiñera. Debara juaten naiz normalian, baiña aparkatze-ko arazuak daguazenez azkenaldian Zarautzera juaten naiz.

MAITE ASEGINOLAZA
63 urte
aurrejubilaua

Debara juaten naiz, baiña hondartzara baiño gehixago, pasiatzera. Begittantzen jata oso ondo daguala eta azken urtiotan asko hobetu dabela. Nik neuk ez neuke gauza gehixago eskatuko, dagan moduan ondo dago.



AGUSTIN VÁZQUEZ
62 urte
tornerua


Nahiko ondo dagoz. Deba, Zumaia eta Zarautzera juaten naiz gehixen bat eta ondo dagoz. Arzua aparkamenduena da, izan be, ez dago nahikua toki. Holan, jendia ez da kanpotik etortzen eta txarto aparkatuz gero, multia ipintzen detsue. Emoten dau nahitta egitten dabela.



Sanjuanetan gaua bikain hasteko! Kafe goxoa eta tragorik onena

EIBARKO BATZOKIA
Ego Gain, 1 - behea

Tfnoa. 943 25 72 80
www.baibatxokia.com



RAZIOAK BARRAN

Legatza frijitua
9 euro

Urdaiazpiko iberikoa
8 euro

Sepia plantxan
6 euro

Olagarroa
6 euro

Filetea
9 euro

Entsaladak
...

Istripu askotxo gauza onerako A-8 autopistan gertaen diranak Eibartik pasatzerakuan, batez be Azittaingo biaduktuaren inguruan: azkena aurreko astekua izan zan, suhiltzailliak egin biharreko lan ikusgarrixarekin txintxilizka geratu zan kabinaren barrutik kamioi gidarixa erreskatatzian. Aurretik be mirari antzerakua gertau zan hor bertan, beste kamioilari bat 25 metroko altura horretik jausi eta miñik hartu barik urten ebanian. Hildakuak be izan dira, tartian auto baten zoiazan lau ertzaiñ, emakume bat tartian. Herri barruan, bestalde, asko gitxittu dira puntu baltzak deittu leikiezenak eta Torrekuako urteeria da arrisku gehixen dakana, bariantiaren hainbat tarterekin batera: hillaren 22xan inauguratuko da bertako hirugarren fasia, Ermuraino juango dana.



HERRI BARRUAN, TORREKUA KALIA DA ARRISKUTSUENA

Azittaingua: autopistako punto baltza

Susto galanta hartu eban aurreko asteko astelehen arratsaldian A-8 autopistatik zoian trailerraren gidariak. Kamioilarixari pare bat ordu itxoittia tokau jakon, kabina barruan, suhiltzailliak bertatik etara eben arte. Gure herrixa inguratzen dabon Bilbao-Behobia autopista-

2008ko abenduan auto bat errekarra juan zan Torrekuaren eta lagun bi zauritu ziran. Behian, urte bereko apirillian trailer bat medianara igo zanian. Azken honekin koinzidido eben be Jardinetan ataskatu zan furgonetia eta Amañan geratu zan kamioia: kaosa izan zan zirkulaziñuan.



ren zatixan istripuak ez dira gauza arrarua, eta Azittaingo biadukto hori izan leike arriskutsuenetarikua. Alturia be ez da badaezpadakua, behin bidetik urtenda. 25 metro dagoz eta horretxek egin zittuan Zaurutzen bizi zan Ukrainako kamioilarixak 2007ko oktubrian, bere kamioiaren barruan Azittaiñ auzua-


ren erdira jausi baiño lehen. Bertakuak harrituta, eta bera siñistu eziñik. Kamioilarixen patua!

Ez eben suerte bera izan 1991eko azaruaren 7xan metro batzuen aldiarekin toki beretik jausi zan auto barruan zoiazek. Lau ertzaiñ hil ziran orduan eta beste bat larri zauritu Renault 19 haura errekarra jausi zanian, mendixan maldan behera juan ata autua ahuzpez geratu ondoren. Olixo mantxa bati bota ze-

tzen istripuaren errua, demaseko abiadurariak be zer esanik baekala apuntatu bazan be. Hori izan da istripu larrixena toki horretan oiñ arte.

Azittaiñen izan dira "izen haundiko edo" beste inplikatu batzuk be. Holan, GALen eta gerra zikiñaren holako saltsatan jardundako Amedo komisarixuak istripua "izan ei eban" 1983ko iraillaren 23an. Lasa eta Zabalaren desagerpenarekin zerikusirik ez ekala-eta, istripu hori erabili eban sumarixuan bere burua zuritzeko. Sumarixuan, gaiñera, A-8a arriskutsua dala Eibartik pasatzerakuan aittatzen da. Badirudi hiru bertebra zapalduta eta kristalak eragin-dako hainbat zauri izan zittuala Amedok eta 20 eguneko baja emon zetsela.

Bere sasoiaren halako ospia izan eban Gregorio Aitta Santuak, Palmar de Troyako Clemente Domínguezek be istripua izan eban bertan eta orduan geratu zan itsu. Azken honen istripua 1975ian izan zan, autopistia egiñ eta handik pare bat urtera: Durangotik Eibarreraiñoko tramua 1972ko abenduan inaugurau zan eta Eibar eta Elgoibarren artekoa 1973ko juni-xuan. 2005ian hil zan Clemente Aita Santuaren biografian agertzen da istripu horren datua.



Torrekuak dauka arrisku gehixen

Hori diño Jose Miguel Calle udaltzainburuak herri barruko istripuak izateko arrisku-garritasuna aztertzerakuan: "Herritik urte-zeko lekua izanda, abiadura be haundixagua da eta hori izango litzake ixa punto baltz bakarra herrixan. Bariantia be ezin dogu ahaztu, batez be Estaziño kalera bajatzen dan bihurgunia. Bestela, herrixak kale bi haundi dittu trafikora begira eta horko zirkulaziñua ahal dogun modu antolatuenian eramaten dogu. Bariantia, esaterako, Ertzaintzaren esku dago, nahiz-eta guk be lagundu ahal dogun neurrixan".

Oin baiño lehenago, izan dira gure herrixan beste puntu arrisksu batzuk: Bilbo etorbida eta Barrena kalia, honek bixok be herrixaren urteerian, istripu bat baiño gehixago ezagutu dabe. "Holakuetan, semaforuak asko lagundu dabe, belarrixak deitzen diranak be mesedetarako izan dira... Paso-

zebrak-eta, bidia itxiago egiñaz, psikologikoki be gidarixa bihartzan dabe astiruago juaten. Ikerketetan be halako gauzen garrantzixa narbarmentzen da", diño Callek.

Herri barruko oiñezkuen harra-patzetan, inplikatu gehixenak edadekuak izaten dirala diñue Udaltzainguan. "Azken hildakuen kasuak hola izan dira. Erreflejo gixiago izatiaz gaiñ, askok pilulak be hartu bihar izaten dabe eta horrek be eragiña daka despistietan eta halakuetan".

Kamioiak galduta auzetan

Halakuak be gertau izan dira gurian "eta oindiokan be izaten dira, batez be Legarren eta Amañan; noizian behin, Jardiñetan be bai". Kanpoko kamioilarixen artian, gurera barriro bueltatzeko gogo gitxirekin geratuko bat baiño gehixago halakuak pasauta: "Ez da atzerritarren kasua bakarrik, penintsulakueri be gertazen jakue. Arazuetako bat da karteletan Eibar haundi batekin Legarre txikitxo bat agertzen dala eta horrek despistau egitten dittu, gaiñera maniobratzeko tarte haundirik ez dakenian kartela gain-gaiñian eguanian ikusi dabelako", diosku Jose Miguelek. Diputaziñuari halakueri erremedixua ipintzeko behin baiño gehixaguetan aittatu detsela diño. "Horregaittik, Eibarrerako sarrera na-



Jose Miguel Calle udaltzainburuak istripu arluen Eibarren azken urtiotan asko hobetu dala diño. Torrekuo eta bariantia dira puntu arrisksuena.

turala Estaziñokua danian, kanpokuak Legarreraiño jotzen dabe. Kartelian Legarre edo Amaña jarri ezker, bakarrik, ez zan halakorik izango".

Heziketa biala bihar da

Bestelako neurrixak hartu biharrian, heziketa bialaren aldekoa da Calle. Harrapatziak asko jaitxi dira herrixan azken urtiotan eta hor, "udaltzaiñak be eskoletara juan arren, hori baiño premiñazkuagua da maisu-maistrak eurak heziketa hori emotia, konzienziaziñua zabaltzia". Istripuetako biktimen alkartiak be lan haundixa egin dabela diño, eta baita instituziñuak lagundutako kanpaiñak. Jendiak ardura hori bada-kala diño: "Euskadin, gaiñera, estatuaren buruan gagoz arlo horretan".



Azittiango biaduktuaren punto beltzak hainbat istripu sortu dittu.

EGOITZA NAGUSIA
Bilboarrista 20 - beheko, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errusketak labea

Egoibonan (Signo poligonon)

Azirikalar, mita eta osaguri ebeki zerbitzuak

Koroak - Eskelak - Urteanako eskelak

Euskal Herri osoko ospitaleen bertzen zerbitzu

Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

ARTOLA

jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Lomo iberikoaren carpaccio-a
Etxeko foie

Tomate entsalada ahuntz gaztarekin

Legatza laban edo
Bakailaoa pikillo saltsarekin

Solomilloa plantxan edo
Txerri iberikoaren sekretua


Degustazio postrea edo
Limoi sorbetea cavarekin edo
Txokolata mousse-a Armagnac erara

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Astehenetik
barixakura
EGUNEKO
MENUA
15 €

Tokia gordetzeko:
943206348

25 € + BEZ

TEEN-
AUEA

Ametza bizi zuen **Ane Miren Barrero** asteburuan. **Shakirak Bilboko San Mames** toball zelaian kontzertua eskaini zuen eta 14 urteko eibartarrak abeslari kolonbiarrarekin dantzan egiteko aukera izan zuen. Bere aurpegiak poza eta harridura erakusten zuen oraindik elkarriketa egiterakoan.

ANE MIREN BARRERO, dantzaria:

“Publikoari begiratzen nion nik San Mamesen”

- Benetan jabetzen zara gertatu zaizunaz?

Bai, pentsatu dut gertatu den guztiaren gainean, izan dudan aukeran eta pasada bat iruditzen zait, sinestu ezinekoa. Milaka lagunengandik dantzan egitea Shakira bezalako artista batekin, izugarria da.

- Bete egin zen San Mames?

la beteta zegoela esango nuke. Irakurri dudanez 25.000 pertsona joan ziren kontzertura.

- Hainbeste jenderen aurrean dantzan egitean, urduritasuna nabaria izango zen.

Eszenatokira igo aurretik eskilaretan urduri negoen, gainera zure alboan Shakira ikusteak errespetua ezartzen du, baina behin gora igota ez nuen hainbeste urduritasun sentitu.

- Zer pentsatzen zenuen Shakiraren alboan eszenatoki batean 25.000 pertsonaren aurrean dantzan egitean?

Ufff, gainera niri bere ondoan tokatu zitzaidan. Baina beste pertsona bat gehiago izango balitz bezala ikusten nuen. Nik hango jendetza guztia ikusten nuen eta beno, ondo joan zen dena.

- Shakirarekin berarekin ber-

betan egoteko aukera edo tarterik izan duzu?

Ez, pertsonalki ez. Heldu eta berehala Pacha-ra koreografia entsaiatzera eraman gintuzten dantzari ofizialek. Handik, ondoren, zuzenean kontzertura eraman gintuzten eta ikusikizuna hasi zen. Hala ere, nahiko 'lehorra' iruditu zitzaidan Shakira.

- Momentu berezia izango zen Shakirarekin dantzan egiteko zenuela esan zizutenean?

Badago ETB-ko bideo bat momentu hori jasotzen duena, eta hura ikustearekin bakarrik emozionatu egiten naiz.

- Nolako izan zen castinga?

Famako lau dantzarirekin egin genuen castinga eta lehenengo koreografiatik esan zidan Marbelysek ondo dantzatzen nuela. Pentsa nolako poza. 60 bat pertsona aurkeztu ginen han eta ni nintzen gazteenetarikoa, 14 urtetik gorakoentzat egin baitzen deia. Han zirkulu bat osatu genuen denek eta buruz-buruko lehia egin genuen dantzan. Onenak poltsa bat jasotzen zuen opari gisa, eta niri tokatu zitzaidanean Marbelys jaitsi eta berak eman zidan poltsa. Pozgarria izan zen.

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

ITZULPEN
ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarara,
gaztelaratik euskarara,
eta ingelesez euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

Itziora joan da Armeria Eskola Saria

Armeria Eskola Sariak ez du bide luzeegia egin behar izan hamargarren edizioan: Irati Murgoitio, Leire Barrena eta Aitziber Ayala Itzioko BHIko ikasleek irabazi dute saria DBHkoen atalean "Negutegia ate automatikoarekin" izenburuko proiektuarekin, lehian izan diren beste 7 parte-hartzaileen artean nagusitu eta gero. Epaimahaiko kideek aurkeztutako lan guztietan egon den maila altua goraiatu dute.

Saria eraman duten Itzioko

ikasleek "Negutegia ate automatikoarekin" izenburuko proiektua garatzeko orduan Amaia Muniategi irakaslearen laguntza izan dute. Proiektua eguzki-argiaren bitartez ateen irekitze eta itxiera kontrolatzeko dispositiboaren ingurukoa da. Aurreko astean, eguenean Armeria Eskolan egindako sari-banaketa ekitaldian Itziokoek 750 euro (375 euro zentruko Teknologia Departamenduak material informatikoa erosteko erabiliko dira eta beste 375 eu-



Saria jaso duten ikasle talde biak, irakasle eta antolatzaileak lagunduta, talde argazkian.



Itzioko taldeak lehenengo saria eskuratu zuten.

roak taldekideen artean banatuko dituzte) eta diploma jaso zituzten.

Bigarren saria, berriz, Bergarako Mariaren Lagundiako ikasleek eraman zuten 'Esne muu kotxea' proiektuari esker. Lorea Franco, Joseba Osa eta Gui-

lermo Regorigoren proiektuak motore bi eta LED argidun ibilgailu telegidatua da. Ekaitz Axula irakasleak bideratu du saria irabazi duen proiektua. Bergararak 450 euro (225 euro zentruko Teknologia Departamenduak material informatikoa erosteko eta beste 225 euroak taldekideen artean banatzeko) eta diploma jaso zituzten.

Armeria Eskolak DBH eta Batxilergoan formakuntza tek-

nologia sustatzeko asmoz antolatzen du lehiaketa hau. Aurtengo edizioan DBH mailan, Itzio eta Mariaren Lagundiko ikasleek gain, La Salle Azitain (proiektu birekin), Itzio, Ermuko Anaitasuna eta Ongarai, eta Bergarako Aranzadik hartu dute parte. Batxilergo mailan, bestalde, ez da lehiatzeko proiekturik jaso eta, horregatik, atal horri dagokion saria eman gabe laga dute.



Sari guztiak Ingeniaritza Tekniko Industrialeko ikasleentzat izan ziren.

Felix Sopelana Sariak EVITra

Gipuzkoako Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialeko Eskola Ofizialak antolatzen dituen Felix Sopelana Sariak banatu ziren maiatzaren 19an Gipuzkoako COPITren areto nagusian eta Eibarko EUITra joan dira aurtengo sari guztiak. VII. Edizioa bete dute aurtengo sari guztiak eta karrerako proiektuak dira bertan parte-hartzen duten proiektuak.

David Cayon Vazquezek lortu zuen lehen saria eta, horrekin, 1.500 euro. Bigarren postuan Mikel Lasa Darpon geratu zen (1.000 euro) eta hirugarrenean Enrique Centeno Lopez (500 euro), denak Ingeniaritza Tekniko Industrialeko ikasleak.

David Cayon Vazquezek lortu zuen lehen saria eta, horrekin, 1.500 euro. Bigarren postuan Mikel Lasa Darpon geratu zen (1.000 euro) eta hirugarrenean Enrique Centeno Lopez (500 euro), denak Ingeniaritza Tekniko Industrialeko ikasleak.

Deporreko Klubaren Eguna Arraten

Klub Deportiboak, urtero legez, elkartearen egun handia ospatu zuen domekan Arraten. Gazteak izan ziren nagusi egunean zehar, hasi Mendi Batzordekoen domina banaketarekin, eta roll-eski igoerarekin eta Caelo Memorialaren pelota partiduekin jarraitzeko. Mendi bueltak ere izan ziren eta, amaitzeko, bazkaria.



Mendiko dominak jaso zituzten taldearen irudia. / MAIALEN BELAUSTEGI

Hiltzeko ueña iritsi arte bizia badagoela erakusten du SAIATU proiektuak. Aitzindaria da Euskal Herrian eta harrera ona izan du otsailean zerbitzua eskaintzen hasi zenetik (doakoa da). Zaintza paliatiboak eskaintzen ditu, hiltzorian dauden pertsonen eta inguruko bizi-kalitatea hobetuz. Kontaktatzeko 666685038 telefonora deitu.

NAOMI HASSON (Saiatu-ko koordinatzailea):

“Hiltzorian dagoena ezin da sendatu, baina bai zaindu”

- Zainketa paliatiboekin heriotza duina biltzen da, baina nola lortzen da hori?

Zainketa paliatibo bezala ulertzen dugu tratamendu sendagarria egin ezin denean egiten den tratamendua. Heriotzaren atean dagoen pertsona bat ezin da sendatu, baina bai zaindu. Pertsona horri bizi-kalitate ona ematea da helburua eta amaierara arte bizitzea. Zorionsuak izatea eta bizitzaz gozatzea ahalik eta gehien, nahiz eta ulertu amaiera fasean daudela.

- Zein da zainketa paliatiboaren eta eutanasiaren arteko aldea?

Ez dira inolaz ere gauza bera. Ulertzen dugu jendeak, askotan, heriotza aurrez-aurre ikustean beldurra izatea, galduta egotea; eta pertsona horiek zaindu, lagundu edo entzuten baditugu, ikusten dute bizitzak merezi duela. Beraz, hori da eutanasia eta zainketa paliatiboaren arteko aldea. Ez dute zerikusirik.

- Saiatuk eskaintzen duen zerbitzua berrira da Euskal Herrian. Nola hartu du jendeak?

Hasi ginenetik 25 kasu izan ditugu, eta esan digutenez eta guk egunero ikusi dugunaren arabera, gustora egon dira. Guk familiariekin egin behar ditugu kontaktuak. Nola egin hori? Bada sortutako sareen bitartez: Udalak, etxeetan dabilzan zainatzaileak, laguntza-pri-

marioa eskaintzen dituztenak... Orduan, badaude sendagileak ekimen hau ondo hartu dutenak, konektatu dutenak, eta pozik daude eurekin dugun koordinazioarekin, baita Udalak ere. Batzuk pentsatzen dute berez Osakidetza eskaintzen den zerbitzu bera eskainiko genuela, baina ez. Egunean zehar badaude hainbeste ordu, hainbeste hutsune, zerbitzu hauentzat lekua dagoela. Horrela, guk familiariekin behin kontaktua eginda, duten beharrianak aztertzen ditugu, eta euskal kultura nahiko kultura itxia eta familiarra denez, poliki-poliki joaten gara eta behar horiek asetzen saiatzen gara. Hasieran astean bisita bat izan daiteke, lotura egin gaixoa eta familiariekin, eta ondoren frekuentzia handitu. Telefonoa egunean 24 ordu erabilgarri uzten dugu. Horrek lasaitasuna ematen du, ez baituzu urgentzietara joan behar zerbait gertatuz gero, horrek sortzen duen antsietatearekin.

- Beraz, Osakidetza eskaintzen denaren zerbitzu osagarria da Saiatu?

Bai, guztiz. Medikuek bi daukagu, erizain taldea, gizarte-langileak... Azken honek, beldur izugarria eta zorabio handia duen familia eta Osakidetza gizarte-langile taldea kontaktuan jartzen ditu, berak ez du gizarte-langilearen lana egiten, zubi-lana baizik, orientatu egiten du. Medikuen kasua ia ber-

din. Izan ere, eguneko ordu askotan zaintza barik daude gaixoak, hutsuneak daude ezin delako dena iritsi, beraz, hor sartzen gara, hutsune horiek betetzera. Dena modu xumean eta poliki-poliki.

- Nola sortu zen horrelako zerbitzua eskaintzeko ideia?

Ni irlandarra naiz, eta han eta Erresuma Batuan badago honen gainean kultura handia, “Hospital at home” deitzen dena. Han oso arrunta da, ni horrekin hezitu nintzen eta barneratuta daukat. Orduan, 15 urte daramatzat hemen, eta zer dagoen eta zer ez ikusi dut. Lana laga nuenean pentsatu nuen ea zer egin zitekeen eta Gipuzkoako Foru Aldundira jo nuen zainketa paliatiboaren ideia azalduz. Egitasmoa gustatu egin zitzaion lana sortzeko aukera moduan ikusi zutelako. Ondoren, Bizkaiko Denokinn enpresara ere joan ginen, eta eurak dira laguntzen, finantziarioa bilatzen eta abar ari direnak. Bi hauen laguntza gabe ezin zen Saiatu mantendu, familiariekin doakoa delako eta gu soldatapean gaudelako, ez baikara boluntario. Badago asmoa boluntario taldea edukitzeko, baina boluntarioekin bakarrik lan egitea ezinezkoa ikusten dugu. Orain Europako Gizarte-Fondotik ere laguntza jaso dugu.

elkarrizketa osoa: www.etakitto.com



Naomi Hasson (argazkiaren ezkerrean) eta Saiatuko gizarte-langilea (eskuman). / EKHI BELAR



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA



Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24




- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net



Kirola Euskaraz Bizi 2011 IÑOIZ BAIÑO GORRIXAGO

Urteroko hitzorduari kale egin barik eta, pronostiko guztien gaiñetik eguzkixa lagun ebela, primeran ospatu zittuen Kirola Euskaraz Bizi jaialdixaren beste ediziño bat Juan Antonio Moguel ikastolako ikasle, irakasle eta gurasuak. Olinpiadetan parte hartu eben talde guztien kalejirarekin ekin zetsen egunari eta, segidan, kirol-norgehiagokak hasi ziran: pelotan, foballian, saskibaloian, patiñetan, hockeyxan, sokasaltuan, boleibollian, sokatiran, aerobitoian, abiadura proban, errelebutan... Kirol klase guztietan ederto moldatzen dirala agerixan laga eben kirolari gaztiak. Gaiñera, arratsaldian Adolfo Jainagarekin soiñua eta panderua jotzen ikasten diharduenak, Musika Eskolako ikasliekin batera, ederto girotu zittuen Iturburun eguazanak. Krosaren ostian domiñak banatuta, datorren urtera arte agurtu zittuen kirolaren eta euskeriaren olinpiadak.





Gero eta gorago, haize gehixago.



Abituallamientua.



Pelota jokua
ren ikusgarritasuna.




Errealidadiaren aurrian.



Smash-a
saskibaloian.



Azken metruetako joko irekixa.



Abiadura kontua.





Hockey-xa: makurtzeko onena.



Identifikaziño
kontua.



Dantzarako beti
dago tartia.



Eskaladia
eta
mensajia
amaterian.



Soka-saltuan
gabiz gu
gustora!




Dan-dana emonda be,
gatxa
hainbesteren kontra.



Hamaikakuak prest!



Munduaren
bestelako
ikuspegixa.





Olinpiada Txikixa: badator errelebua

Ixa jaixo-barrixen harmailla.



Txikixak, barriz, maiatzeko azken zapatuan ospatu zittuen olinpiadak. Nagusixenen saiua baiño laburragua izan zan, baiña ez pentsau horregaittik atzian geratu ziranik, ezta gitxiago be! Irakaslien agindueri fin-fin jarraituta, gogo bizixarekin jardun eben jokuetan eta kaskara biltzen, txinga-eruatzen eta motor gainian parekorik ez dakela argi laga eben.



Kaskara-biltzia benetan koloretsua.



Motorrak bero-bero urtetzeko gertu.



Armozua ondo hartuta, txinga-eruatiak ez daka misteriorik.





Zaletuak sinestuta daude taldea azken kanporaketara iritsiko delakoan. / EKHI BELAR

0-0 aldeko bihurtzeko asmoz

**ORAINGOAN SABADELL-
EKIN GERTATUTAKOA EZ
ERREPIKATZEA ESPERO
DA** eta Eibar FTk kanporaketa-
ren azken emaitza alde izatea.
Iaz ere kanporatzea lortu zuten
Alcoyano izango da "biktima" ei-
bartarrek aurkariak baino gol
bat gehiago sartzea lortzen ba-
dute behintzat. Neurketa arra-
tsaldeko 19.00etan hasiko da
eta telebistak ez du eskainiko.
Alcoyn jokaturako partiduan on-
do moldatu ziren Manix Man-
diolaren mutilak eta aukera bat
baino gehiago izan zuten; hala
ere, emaitza ontzat eman behar
da eta, Eibarko entrenatzaileak
dioen moduan, "emaitza horrek


*arriskua badakar ere, eurek ere
nahiago izango lukete itzulera-
ko partidua etxean jokatzea".*
Alex García errekuperatuta da-
go Alcoyn izandako zorabioaz.

Hainbat ekitaldi

Partidua aprobeztatu, Bat
Eginda Lortuko Dugu platafor-
makoek hainbat ekitaldi antola-
tu dituzte egun horretarako:
herri-poteoa egingo da 12.00-
etan, Koskor-etik irtenda; herri-
bazkaria izango da Untzagan
15.00etan; 17.00etan kalejiran
joango dira Ipuruaraino, ban-
dera erraldoiarekin; eta 18.30-
etatik aurrera jokalariei bero-
ketan animatzen izango dira.

Galdaramiñoko mendi lasterketa Joseba Plazarentzat

**JOSEBA PLAZA IRABAZLEAK IA BI MINUTU ETA ERDIKO AL-
DEA ATERA ZION** Iñigo Lariz elgoibartarrari Urkiko jaien barruan
jokaturako Galdaramiñoko mendi lasterketaren III. edizioan. Dul-
tzaineroen doinuak entzun eta
beste ezer hartu barik abiatu zi-
ren 31 parte-hartzaileak ia hamar
kilometro eta erdiko ibilbidea egi-
teko. Lasterketan 720 metroko
desnibela gainditzen da eta Gal-
daramiño eta Azkonabitzazapal-
tzen. Irabazleak 50 minutu behar
izan zituen proba amaitzeko eta
Ane Ziaran izan zen emakume
onena, ia 20 minutura.




Ondarroako triatltoa

Zapatuko Ondarroako XVI. triatltoian, Eibar Triatltoi Taldeko Ale-
jandro Altuna bigarrena izan zen beteteranoen 2 mailan eta postu be-
ra eskuratu zuen Ane Ziaran taldekideak 23 urtetik azpikoenean.
Aritz Egeak (Atco. SS) irabazi zuen gizonezkoen absoluto mailan,
2h02'48" denborarekin, eta Ana Casares (Polo AC) izan zen onena
emakumezkoen arloan, 2h23'07" denbora eginez.

Romarate igerilariak urrezko bost domina irabazi ditu

**ETA ZILARREZKO BESTE BI MURTZIAN HILAREN 3-AN ETA 4-
AN JOKATUTAKO IGERIKETA EGOKITUTAKO ESPAINIAKO
TXAPELKETETAN.** Ander Romarate braza modalitateko 50, 100
eta 200 metroko probetan na-
gusitu zen eta baita bizkar
erako 100 eta 200ekoetan; zi-
larra, bestalde, erreleboetako
probetan eskuratu zuen, libre
eta estilo modalitateetako
4x100eko lasterketetan. Ei-
barko igerilariak Euskadiko
selektzioaren antzekoa osa-
tzen duen Konporta taldeare-
kin jardun zuen txapelketetan
eta eurak izan dira, 50 talde
eta 200 kirolarien artean, txa-
pelketako nagusiak.




Agirresarobe lau eta erdian Astelenan

**ANDER AGIRRESAROBEN IZANGO DA PROTAGONISTA GAUR
ASTELENAN** 20.15etatik aurrera jokaturako den jaialdian; Urretxu-
ko Agirrezabal izango du aurkari partidu bakarrera jokaturako den
Udaberri Torneoaren final zortzirenetan. Klub Deportiboko beste
bikote batek -Arrilagak eta Narbaizak osatzen duten infantil maila-
koak- Ordizian jokatu beharko du torneo bereko final laurdenetako
kanporaketa. Egaña, bestalde, torneotik kanpo geratu da Altuna

profesional-ohiarekin 20-22
galdu eta gero.

Arraten domekan jokaturako
Caelo Memorialean, bes-
talde, Narbaiza-Agirresarobe
bikotea Ruiz-Andonegi baino
gehiago izan zen (22-17) eta
Unamunzaga-Egaña bikote-
ak ere ondo hartu zion neu-
rria Zubizarretak eta Bengoe-
txeak osatutakoari: 22-16.



Waterpolokoek Kopako finalerdietan

**AZKEN JARDUNALDIAN IRUNEN BIDASOA B-KIN 7-5 GALDU-
TA ERE, ARMAGINEK ETXEN LANA EGINDA ZITUZTEN** au-
rretik eta asteburu honetan seguruenik Anoetan jokaturako diren Gi-
puzkoako Kopako finalerdietan dira dagoeneko. Euskadiko Kopari
dagokionez, Orbeakoei garaipen bakarra falta zaie hor ere finaler-
dietara pasatzeko; dome-
kan 12-11 irabazi zieten Ea-
sori eta bihar izango dute
aukera Leioan falta zaien
garaipen hori lortzeko,
13.45etatik aurrera. Hori
lortuz gero, Urbat-Urkotro-
nik izango da talde bakarra
finalerdi bietan sartzen.




Hogei taldek dihardute udako foball-7 torneoan

AURREKO ASTEBURUAN HASI ZEN, UNBEKO KIROLGUNEAN, ELGOIBARKO ETA EIBARKO PATRONATOEK ANTOLATUTAKO FOBALL-7 ESQUALDEKO TORNEOA.

Hogei talde lehiatuko dira, lau multzotan banatuta, torneoaren tituluaren bila. A multzoan Pau-pérrimo Balompié, La Naranja Mekanika, EGS, Amaña Rebels eta Roketxek jardungo dute, B multzoan Limaro, Joga Bonito, Aisi-kian, Abu Dhabi Team eta Kilimon, C multzoan Aston Birra, Mesón Agiñas-pi, Rompe Huesos Return, 101001 eta Dady's Seven, eta D multzoan, azkenik, Minabo de Kiev, Restaurante Ca-



serío, Hamalauak, Smack Down eta Alligator Team izango dira. Aurretik ligaxka bat jokatu dute Kopa fasera-ko zeintzuk sailkatuko diren erabakitze-ko eta fase horretako bi onenak finalen izango dira uztailearen 22an.



Ipuruia Klubaren topaketetako beste saio bi egingo dira Eibarren

ZAPATUAN EL CORTE INGLÉSAREN AURREAN ESKAINITAKO ERAKUSTALDIAREN ONDOREN, Ipurua GR 5. Topaketek Markinako pilotalekuan izango dute txanda bihar, 11.30etan hasita; eta, aurtengo Topaketekin amaitzeko, beste erakustaldi

bi egingo dira Eibarren: 18an Kiroldegan eta hurrengo egunean, 19an, Untzagan, 100 ikasletik gora parte-hartzaileekin. Asteburuan jokatu-tako Euskadiko txapelketan, bestalde, kadete mailako Ipuruako taldeak 4. postua eskuratu zuen.

Gipuzkoako Kopa Arrateko kadeteentzat



AURREKO BARIKUAN EGIAKO KIROLDEGIAN JOKATUTAKO TRIANGULARREAN, Arrate eskubaloiko kadete mailako taldeak Gipuzkoako Kopa bereganatu zuen Egari 21-19 irabaziz lehenengo partiduan eta, jarraian, Tolosa 16-10 menperatuz.



Tiro olinpikoko San Juan Torneoaren XX. edizioa 18an

HILAREN 18-AN, ZAPATUAN, JOKATUKO DA HEZKUNTZA ESPARRUAN tiro olinpikoko San Juan Torneoaren 20. edizioa. Lehiaketa goizeko 11.00etan hasiko da eta mira zabaleko karabinek in egingo da. Parte hartu nahi duten guztiak izena eman dezakete egunean bertan eta torneoa, ohizkoa denez, hiru mailatan jokatu da: infantil, jubenil eta seniorretan.

50 judoka Kalamuako Udaberri torneoan

BENJAMIN ETA ALEBIN ADINETAKO 50 BAT JU-DOKEK HARTU ZUTEN PARTE KALAMUA KLUBAREN INSTALAZIOETAN jokatu zen Udaberri judo torneoan. Bederatzi mailatan banatutako lehiaketan, Eibarko klubekoekin batera Soralezeko Ukalde taldeko ordezkariak ere izan ziren. Irene Aristi, Maddi Beraza, Eider Gómez, Irene Etxeberria, Markel Simón, Unai Soraluze, Danel Ibarrola eta Asier Sebastián egin ziren urrezko dominen jabe eta Espainiako jiu-jitsu txapelketan domina jaso zuten Nekane Muguruza, Adrian Riaño eta Julen Ramón izan ziren dominak ematen.



Alkide-JoserAuto foball-zaletuen Kopako finalean

GARAIPEN ARGIAK LORTU ZITUZTEN ALKIDEBAK (4-1 LIVING CAFÉRI) ETA JOSERAUTOK (3-1 Esmorgari) foball-zaletuen Kopako finalerdietan. Roberto, Ochoa, Ariel eta Jorge izan ziren Alkidebako goleatzaileak eta Carlos -bi golekin- eta Baqué izan ziren JoserAutoko goleatzaileak. Finala bihar jokatu da, goizeko 10.30etan, Unbeko instalazioetan eta, partidua amaitzeko, sariak banatuko zaizkie denboraldiko goleatzaile, atezain eta talde onenei.

Arkaitz Rodríguez, hiru-txirloko Gipuzkoako txapelkun



Txirlo biko aldea atera dio bigarrenari Arkaitz Rodríguez Asola-Berriko ordezkariak Gipuzkoako XLII. hiru-txirlo Gipuzkoako txapelketan. Orain arte lortu duen garaipen garrantzitsuen du eibartarrak. *"Oinez ibiltzen hastearekin batera"* hasi ei zen hai urrutit zeuden txirloak botatzen. Bittor Rodríguez maisu ezin egokiagoarekin: *"Aitarekin inguruko bolatoki guztiak ezagutu ditugu, bai nik eta baita Ganix anaiak ere"*. Txapelkun izatea espero zuen galdetuta, *"apurka-apurka aukera ikusten joan nintzen. Orain arte, bestelako txapelketetan beti*

kale egin izan dut tiraldi batean edo bestean; baina, oraingoan, tiraldi guztietan, hamar bolatokitik, parte hartu ahal izan dut eta zeozter lortzeko aukerak ere proportzionalki goraka joan dira. Txapela jantzi arte".

Jokoz ondo ikusi du bere burua txapelketa osoan eta, horrez aparte, zaletasunarekin piztea nabarmendu nahi du: *"Etor-kizuna badu kirol honek. Zale-tasuna asko igo da: tiraldi batean, esaterako 95 lagun izan ginen parte hartzen"*. Giroa ere gorapatzen du: *"Bestalako kirol-etan ez dago halakorik; hor lehia baino gehiago, lagunarte-*



Eibarko Asola-Berriko ordezkariak zabala txapelketan irabazitako hainbat sariek.



ko jokoa da dagoena". Aldi berean, ezin du ahaztu emakumeek hainbat urtetik hona hartu duten indarra: *"Orain ere hamar bat inguru izan dira. Gazteek ere gero eta gehiago hartzen dute parte, beterranoen ahaztuta duten urduritasunarekin bada ere"*.

Arraten behar dugu bolatokia

Bolatoki bat izan, bestea izan, berehala hartzen zaiela neurria dio, eta ez dauka bat gogokoen. Hori bai, gustatuko litzaioke Arraten bat egotea: *"Lehen jaietarako halamoduz-*

koa ipintzen zen; baina, bertan sortzen den giroarekin, penagarria da bolatoki bat ez egitea, ezin aproposagoa izango bailitzateke. Itzion sasoi batean zegoena ere kendu zuten...".

Gipuzkoako txapelketan, bestalde, Asola-Berri izan ditu txapelkun gehiago: horrela, Jesus Mari Díezek irabazi du beterranoetan, Egoiz Blancok infantiletan, taldeka Asola-Berri A izan da onena eta, azkenik, bikoteka, Ibai Díezek eta Ganix Rodríguezek osatutakoak San Migueleko ordezkariarekin berdindu du lehenengo postuan.

ARABA EUSKARAZ 2011
 izan zirelako gara, garelako izango dira

AUTOBUS

ZERBITZUA

ekainak 19
LAUDIO
 ikastola

8 euro

IRTEN:
 10.00etan (Ego Gainetik)

BUELTATU
 19.30etan

- J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA
 - ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

ingeniaritza Txandakako INGENIARITZA
 Ate IREKIAK: ekainak 15, 17.00

ZATUZ ETA EZAGUTU GAITZAZU!

www.imh.es
 Tel. 943744132
 Azkue Auzoa, 1
 20870 Elgoibar

Ikasi eta lan... zure txanda /
ekainak 17 (1. astealdia)

Ikasi ikasten
hizpate urtean!

CREMIOEN

GIDA



ANTENAK

BALATZ C.A.
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37 Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com

trinmer

TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 55 55

Aroztegia Ebanisteria
 Obra aroztegia

C **N**

Egiturak, barruko eta kanpoko ateak, armairu enpotatuak, tarimak, parketak, rodapiesak, eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

AROTZAK

ulmar
S.L.

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD
CUADRA EC

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOA
INDUSTRIA BANTERUA
ARREGLATUAK
BERRIKONSTRUKTIOAK

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

ELECTRICIDAD
ETA B.S.L.

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 647 90 66 20 / 607 71 38 73

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaiak eta proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioa
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

• Barne apainketak
• Mantenimendu eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11 Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

ERREFORMAK

ESTUDIOS
ARRILLAGA

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ARRAGUETA 12 -Eibar- ROSARIO 15 -Elgoibar-
Tel. 943 20 06 98 Tel. 943 74 40 19

GARBIKETAK

escudero

INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

CRISTALUX
Limpieza

- Mantenimendu garbiketa
- Kristal garbiketa
- Garbiketa orokorra
- Garbiketa bereziak

cristaluxe@gmail.com
Tfnoa. eta Faxa: 943 20 65 08
Mobila: 659 58 35 32

Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

Limpieza
Multiservicio
Eibar

Superfizie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171

Barrena, 21 - 1. F

TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta mantenimendua

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK

IGELTSERITZA



CAMILO ALVAREZ OROKORREAN

– Barne erreformak
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)

– Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea
Etxeko tfnoa. 943-207678
Mobila. 620 060 104



irazabal

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}

eta faxa: 943 20 39 03

PINTURAK



Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94

T. Etxebarria, 8 - behea



PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89



Pinturas Elias e Hijo, S.L.

pintura eta estaldura mota guztiak

BARAKALDO, 7
Telefonoa: 943 12 05 02
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97



MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

Pintura

Goi mailako dekorazioa



Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

SARRILAGINTZA



GILTZAK

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako atearak eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

Aitarengandik jaso zuen zaletasuna eta Espainiako onenen artean dago. Jose Luis Fernandez Eibarko Txori Lagunak elkarteko kidea da eta Txori Kantarien Espainiako Txapelketan 10. geratu da. Domekan Arraten edukiko dute zaletuek zita. 'Eibarko Hiria'-ren XII. edizioa 9.00etan hasiko da.

JOSE LUIS FERNANDEZ (Eibarko Txori Lagunak):

"Sari mailan lehiaketa onena da Eibarkoa"

- Zertan datza Txori Kantarien lehiaketa batek?

Kantuen gainean kode-legea dago puntuazioak zehazteko. Txoriek koplak igortzen dituzte, oinarrizko kantuak, eta nota bakoitzak balio zehatz bat dauka kodearen arabera. Hiru txori ipintzen dira lehian, 10 minutu-ko aldatzen direnak, eta epaileak 3 txoriak entzun eta notak jartzeko ahalmena dauka. Nota positibo eta negatiboak ezartzen ditu, eta batzabesteko onena daukana da irabazlea.

- Afizio handia dago inguruan?

Federatuen kopuru polita dago. Gipuzkoan 150 bat, Bizkaian gutxiago eta Araban askoz ere gutxiago. Andaluziarekin konparatuz gero, askoz ere gutxiago, han 25.000 baitira federatuak. Afizioa musulmanak iberiar penintsulan zeudenean sortu zen eta horregatik dago hain errotua hegoaldean. Bilbo, Barakaldo eta Eibar moduko hirietan, industria asko egon denez, kanpoko jende asko etorri izan da eta afizio hau ekarri dute.

- Txoria kanturako entrenatu behar da ala berezkoa du?

Kantua berezkoa badu, ez du balio. Gaztetik irakasten zaie kantuan txoriei CD-en bitartez. Afizionatuak kantuak konposatzen ditu lortu nahi duen emaitzaren arabera eta horrela ikasten du txoriak.

- Afizio garestia da?

Alpiste kilogramo batek euro bi balio du, baina kontua da lehiaketetan ez duzula dirusarik jasotzen. Pentsa, Espainiako finalera iritsi nintzen, Antequeran jokatu zen eta federakuntzak 100 euro eman zizkidan. Hegazkinaren prezioa 400 eurokoa zen, aireportura joan behar nuen eta kotxea bertan



laga, Malagatik Antequerara joan, han egunak pasatu eta ondoren buelta. Defizitarioa da, baina gustokoa dugu.

- Zelan joan zitzaizun finala?

Txoria ondo prestatuta neukan, baina zorte txarra izan nuen. Espainiako 35 onenak batu ginen ta 10. geratu nintzen. Txoriak, hala ere, golpea hartu zuen kaiolan aurreko egunean, lehen txandan tokatu zitzaidan (denok gorroto duguna), denbora amaitzean zela hasi zen kantuan txoria... baina Eibartik irtezean sinatuko nuke 10. gertzea. Azkenean gauza askok dute eragina emaitzean, eguraldiak, txoriaren egoerak... zortea beharrezkoa da.

- Domekan da Eibarko lehiaketa. Nolakoa izango da?

Parte-hartze altua espero dugu (maila bitan: kardantxiloa, eta kanarioa eta kardantxiloa). 58 partaide da muga eta espero dugu lortzea. Antequeran izan nintzenean kartelak ipini nituen eta askok hartu zituzten. Zaragoza, Logroño, Santander eta Madrileko jendeak bere parte-hartzea konfirmatu zidan. Izan ere, sari mailan, Eibarkoa da Espainiako lehiaketa onena. Hemen ematen denarekin, Espainiako bi edo hiru final egin daitezke.



J.B. Gisasola Musika Eskolako koroaren

Musika Eskolako ikasturte amaierako kontzertua

DATORREN ASTEAN, EGUAZTENEAN (EKAINAK 15) JUAN BAUTISTA GISASOLA MUSIKA ESKOLAKOEN IKASTURTE AMAIERAKO KONTZERTUA eta diploma banaketa ekitaldia hartuko ditu Coliseoak, 19.00etatik aurrera. Kontzertuan parte hartuko duten ikasle taldeak Juan Bautista Gisasola Korua, Juan Bautista Gisasola Banda, Eibarko Gazteen Korua, Rock Taldea, Kamara-Orkestra, Triki taldea, Folk-Pop taldea, bibolin-gitarra taldea eta akordeoi taldea dira. Kontzertuaren ondoren ikasleei diplomak banatuko dizkiete. Sarrerak salgai daude (euro bi), lehiatilan zein interneten.



Negu Gorriak taldearen Gora Herria abestiari jarraituta egingo da grabazioa.

Jai herritarren aldeko lip-duba grabatuko da

SANJUANAK GAINEAN DAUZKAGU ETA AZKEN AS-TEOTAN BEHARREAN JARDUN DUTE JAIXAK HERRI-XAK HERRIXANDAKO JAI BATZORDEKOEK, lip dubaren grabazioa antolatzen. Gaur bertan grabatuko da "Gora herria" abestiaren inguruko bideo-klipa, Txaltxa Zelaian hasi (musi-

ka kioskoaren inguruan) eta inguruko kaleetan. 16.00etan hasiko dira bertaratzen den jendea nola kokatu eta antolatzen eta parte hartu nahi duenak bertara agertu besterik ez du egin behar. Adin guztietako jendea ongietorria izango dela adierazi dute antolatzaileek, beraz animatu eta bertan agertu!

Musikeibar elkarteak sortu dute

HERRIKO HAINBAT MUSIKARIK ELKARTE BERRIA ERATU DUTE: MUSIKEIBAR. Elkartetik adierazitakoari jarraituta, "elkarte honek txistu eta banda musika eta bertako partaideen formakuntza sustatzea du helburu. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolaren eskaintza osatu nahi dugu eta horrela, irakaskuntza ez arautuaren bitartez, bandetan dugun instrumentu jole premina asetu". Horrekin batera, instrumentu taldeak sortzen ere ahaleginduko direla aurreratuko dute, "musika zaletasuna indartzeko, hobetzeko eta osatzeko asmoz".

Iraskasleak txistulari eta musika bandako partaideak izango dira. Datorren ikasturteko matriku-



lazioari buruzko informazio gehiago jaso nahi izanez gero, elkartearekin harremanetan jartzeko musikeibar@gmail.com helbidera idatzi daiteke edo 687 64 75 37 telefono zenbakira deitu.

Berbalagunak gustora izan ziren Elizondon

EUSKAL HERRI OSOKO BERBALAGUNAK ELKARTZEN DITUEN EGUNA, MINTZA EGUNA, Nafarroa aldera joan da aurten; Elizondo izan zuten topagune zapatuan, eta eibartarrek ez zuten kalerik egin. Hamabosteko taldea abiatu zen goizean goiz Eibartik, Bergara, Arrasate eta Elgoibarkoekin batera. Eguraldia lagun, egun po-

lita pasa zuten: musika, bertsoak, dantza... Denetarik izan zuten, eta eguna biribiltzeko, mintza-praktikan eta orohar euskararen inguruan egindako lana eta ahalegina nabarmentzeko urtero omentzen dituzten artean eibartar bat izan zen: Adelina Otxoa euskaldun berriari urteotan egindako ahalegina eskertu zitzaion.



Adelina Otxoa izan zen ekitaldian omenduetako bat. / AINHOA LUZ

Kaleetan Kantuz eguna bihar Eibarren

BIHAR KALEETAN KANTUZ EGUNA OSPATUKO DA GUREAN: 11.00etan parte-hartzaile guz-

tiek bat egingo dute Untzagan eta bakoitzari hamarretakoa eta oroigarria banatuko dizkiote. Jarreraian, elkartutako abesbatzek elkarrekin abestiren bat eskaini eta, talde bitan banatuta, herrian kalejiran ibiliko dira (talde batekoak herriko goialdeko auzoetan ibiliko dira eta beste taldekoak, berriz, beheko aldekoetan). 14.30ak aldera berriz ere bat egingo dute talde biek, udaletxeko arkupeetan eta, elkarrekin abestu ondoren, 15.00ak aldera han bertan bazkaltzeko asmoa daukate. 18.00ak aldera ekitaldia agurtuko dute.



Aurten hainbat herritako abesbatzek bat egingo dute Eibarren.

laburrak

GORUNTZ-EKOEN ZOZKETA

Goruntz abesbatzak Santillana del Mar-en asteburua pasatzeko bidaia zozketatu du. Irabazlea ekainaren 3ko ONCE-ren zozketan saritutako zenbakiaren azken lau zenbakiekin bat datorren txartela duenak izango da. Saria jasotzeko azken eguna ekainaren 20a izango da eta irabazleak Eibarko 67 Posta Kutxara idatzita edo 943207511 zenbakira deituta eskatu beharko du saria, aipatutako eguna baino lehen.

OPERA COLISEORA EKARRI NAHIAN


Coliseora gero eta jende gehiago erakartzeko asmoari jarraituta, kultur eskaintza zabaltzen jarraitzeko asmoa dago eta, ildo horretan, Eibartik kanpo eskainitako operak zuzenean emateko dauden aukerak aztertzen dihardute. Coliseoko zine aretoak kudeatzen dituen Areto S.L. enpresak esperientzia hori beste herri batzuetan arrakastatsua dela azaldu du eta Eibarren ere hala izan daitekeela uste dute enpresako arduradunek. Ekimena urritik aurrera, ikasturte berriarekin batera martxan ipiniko litzateke.

SARI GEHIAGO ANDREA GONZALEZENIZAT

Nazioarteko sari berriak eskuratu ditu Andrea Gonzalez gitarrajole eibartarrak azken aldian. Erroman Fernando Sor lehiaketan lehenengo saria eskuratu du orain dela gutxi eta, horrez gain, lehiaketako interprete onenari Carlo Minen saria, Città Di Unine sari berezia ere eraman du. Bereizitutako hiru fasetan jokatu zen lehiaketan Argentina, Finlandia, Serbia, Italia, Ukraina, Kroazia, Eslovenia eta Espainiako musikagileek jardun zuten. Eibartarrak Italian eta Madrilan hainbat emanaldi eskainiko ditu.

Sanjuanetan bete-betea sartzeaz

EGUNOTAN EKITALDI SOLTE BATZUK OSPATU DITUGUN ARREN, DATORREN BARIKAKUAN, SANJUANETAKO AURREKO ASTEBURUAN, bete-betea sartuko gara jai egitarauan. Hilaren 17an, arratsaldeko 18.00etan hasi eta 21.00ak bitartean, Ipurua kiroldegian Eibar Hiria Squash Sarirako aurreko kanporaketak jokatuko dituzte, Klub Deportiboak antolatuta. 19.30etan, berriz, Kezka Dantza Taldeak urteroko martxari jarraituta Dantzari Eguna ospatuko du Untzagan, Kezkako dantzari guztien parte-hartzearekin. Eta gauean antzerkia, boxeo eta musika izango dira. 22.00etan jaietarako antolatu diren kale-antzezki-zinetako lehena ikusteko aukera izango da: En La Lona konpainiaren "Exodo" ikuskizuna Toribio Etxebarria kalean hasiko da eta kale hori eta Untzaga bitartean garatuko da. Dantzak, erritualak, akrobaziak, antzezkiak fisikoa



Anari




Los Coronas

eta umorea, horiek guztiak bat egingo dute En La Lona taldearen ikuskizunean. 22.30-etan, berriz, Astelena frontoiak boxeo gaua hartuko du Gasteiz Sportek antolatuta.


Anari eta Los Coronas

Eta gaueko 23.00etatik aurrera jaietarako le-

henengo kontzertua hasiko da, kontzertu bikoitza gainera Anari eta Los Coronas taldeekin. Anari Alberdi azkoitiarrak 1997an eman zuen musika mundura saltoa eta harrezkero ez da geldirik egon. Abeslari eta konpositoreak bakar-kako 3 disko eman ditu argitara eta laugarren batean Pettirekin elkarlanean jardun zuen. Guztiakin jasotako kritikak oso onak izan dira. Los Coronas taldea, berriz, Espainia mailan surf instrumentalaren arloan diharduten taldeen artean aitzindaria da.




"Exodo"



Piano ikasleen emanaldia

ISABEL LASPIURREN IKASLEEK PIANO KONTZERTUA ESKAINIKO DUTE DATORREN ASTEAN, eguenean, 20.00etan Coliseoan hasiko den emanaldian. Pianojole gazteek hainbat filme ezaguetako soinu-bandetatik hautatutako piezekin osatutako errepertorioa eskainiko dute. Sarrerak euro bitan erosteko moduan daude.



José Vila

García Márquez-en bikote izandako eibartarrari harrera

TACHIA QUINTANA, GABRIEL GARCIA MÁRQUEZEN BIKOTEKIDEA IZANDAKO EIBARTARRA, EGUAZTENEAN IZAN ZEN EIBARREN BISITAN, egunotan Euskal Herrian zehar egiten diharduen bidaia kulturala aprobetxatuta. Miguel de los Toyos alketeak harrera egin zien Quintanari eta berarekin batera bidaiari dabilen ordezkariak: Lourdes Auzmendi Eusko Jaurlaritzako sailburuordeari, Iñaki Martínez Eusko Jaurlaritzako Kolonbia, Venezuela eta Ertamerikarako ordezkariari eta Julian Zelaia Euskal Kolektibitateekin Atzerrirako Harremanetarako zuzendariari. Tachia Quintanak 24 urte zituela laga zuen Eibar, Parisera joateko. Handik urte batzuetara Literatura Nobelarekin saritutako idazle kolonbiarra ezagutu zuen eta bien artean harreman sentimentala sortu zen.



Argazki erakusketa bana Depor eta Ambigú tabernetan


EKAINAREN 30-ERA ARTE, JOSÉ IGNACIO DE CASTROREN ARGAZKI ERAKUSKETA IKUSTEKO AUKE-RA egongo da Klub Deportiboren tabernetan. El Ambigú kafetegian, berriz, José Vila argazkilaria lanak ipini dituzte ikusgai. Erakusketa biak Klub Deportiboko Argazkilaritza Batzordeko kideek antolatu dituzte, hileroko martxari jarraituta.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, AITANA, gaur zure lehelengo urtia betetzen dozulako. Muxu bat aitxitxa-amama eta osaba-izeben partez.




Kaixo, UDAZKEN, gure bihurritxo polittena. Zer moduz atzo zure 4. urtebetetze egunian? Besarkada eta muxu "pillote".




Zorionak, SARA Leturiaga, eguaztenian hamar urte egin zenduaz-en-eta. Ama, aitta eta neben partez.




Zorionak, MAIDER Urizar Bravo, domekan sei urte egingo dozuzelako. Familixaren partez.




Zorionak, ENEKO, mutil haundi!, gaur sei urte betetzen dozuz-eta. Patxo potolo bat aitaxko eta amatxoren partez.



Zorionak, ANDER, astelenian zortzi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, BEÑAT Atondo Pedrera, bixar urtebete egingo dozu-eta. Segi haiñ alai eta zintzo. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, IZARO Bereziartua, hillaren 5ian hiru urte bete zenduaz-en-eta. Aitxitxa-amamen eta osaba-izeben partez.



Zorionak, UNAI, domekan lau urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat Markelen eta famelixaren partez.



Ongi etorri, MARKO Málaga Arizmendi-arrieta. Muxu asko Telmo eta famelixaren partez.



Zorionak, LIBE, martitzenian sei urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat danon partez.



Zorionak, BEÑAT, gure mutil haundixari, domekan hiru urte egingo dozuz-eta. Familixaren partez.


zinea Coliseoan




"El rito"

Zuzendaria: Mikael Hafstrom
Aktoreak: Anthony Hopkins, Alice Braga, Rutger Hauer, Franco Nero


11n: 19.45, 22.30
12an: 19.30
13an: 20.30



Zorionak, IRATI eta amama LUPE, gaur urtiak betetzen dozuzelako. Familixakuen partez.




Zorionak, BEÑAT gure ipurtariñari, domekan urte bi egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



"Perdona pero quiero..."


Zuzendaria: Federico Moccia
Aktoreak: Raoul Bova, Michele Quattrocio, Andrea Montovoi, Francesca Antonelli

11n: 19.45, 22.30
12an: 19.30
13an: 20.30



Ongi-etorri, IZARO, eta zorionak amatxo eta aitaxori. Muxu haundi bat hiruroi etxekuen partez.

Ongi-etorri, JONE, maiatzaren 24tik gure artian zagoz-eta; eta zorionak, MANUEL, bixar lau urte beteko dozuz-eta. Etxekuen partez.



"Midnight in Paris"

Zuzendaria: Woody Allen
Aktoreak: Owen Wilson, Rachel McAdams, Michael Sheen, Carla Bruni

11n: 19.45, 22.30
12an: 19.30
13an: 20.30

HILDAKOAK

- Andres J. Revuelta Mantecón. 79 urte. 2011-VI-2.
- Jose Manuel Díaz García. 79 urte. 2011-VI-2.
- Maite Baskaran Sarasketa. 66 urte. 2011-VI-4.
- Mª Angeles Espeso Carro. 82 urte. 2011-VI-4.
- Miguel Diego González. 63 urte. 2011-VI-5.

JAOTAKOAK

- Ariane Lobato Arenas. 2011-V-29.
- Urko Salegi Artamendi. 2011-V-31.
- Maider Cordeu Pedrosa. 2011-VI-1.
- Nora Tnibar Zhiri. 2011-VI-2.

horoskopoa

ARIES

Sinestu ezinekoko zerbait gertatuko zaizu. Pentsatuko duzu gauza bat askotan pentsatzeagatik egia bihurtzen dela. Beharbada horrela da.

TAURUS

Zerbait gehien behar duzun momentuan huts egiten duzu. Ez zabilta batere zorteko, baina egia esan ez daukazu inongo errurik.

GEMINI

Hiru aukera izango dituzu, baina bakarra aukeratu ahal izango duzu. Distiratsuen hartu nahi izango duzu eta agian hori da aukera egokiena.

CANCER

Zure izarra lo dago eta itzaltzen doa. Orduan konturatuko zara orain arte lortu duzun dena zure lanagatik izan dela, zortea zuk bilatu duzula.

LEO

Sudurra dariola izango duzu aste osoan eta mukizapi egokiak izan beharko dituzu azala ez gorritzeko. Ez zara tapatzen... eta gero gerokoak.

VIRGO

Ez egin kasu handirik zurrumuruei. Jendeak gauza asko asmatzen ditu, min egitea gustatzen zaie-eta. Zuk zeurearekin jarraitu eta kitto!

LIBRA

Kokoteraino zaude besteek zuk egiten duzuna kontrolatzearekin. Datozen egunotan argi lagako diezu buruan dituzun kontu guzti horiek.

SCORPIUS

Non dira aspaldi zenituen ametsak? Atzera begiratu eta berriz gauza lortzeko bidean ipiniko zara. Nahi duzuna lortzea posible izango da.

SAGITTARIUS

Zure burua rasta batzuekin Karibeko uharte batean ikusten duzula? Ea, Marley, errealistagoa izan zaitez eta amets egiteari laga! Ilerik baduzu ala?

CAPRICORNIUS

Kontuz errepidean. Badakizu obrak nonahi daudela eta begiak zabalik izan behar dituzula auto berrian zoazenean. Ez ibili txantxetan!

AQUARIUS

Dena ondo joango den itxaropenaz ekingo diozu asteari eta, izarrek diotenaren arabera, zuk nahi bezala irtengo da dena. Zortekoa zu!

PISCIS

Joan zaitez prestatzen San Juan jaietarako, benetan bereziak izango dira-eta zuretzat. Egun mundialak pasako dituzu! Dударik ez izan.

Barixakua 10

LIP DUB GRABAZIOA 16.00.- Lip Duba grabatzeko elkartzea. Txaltxa Zelaian (musika kiosko inguruan).

DANTZA 20.30.- Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia. Sarrera: Euro bi. Coliseoan.

MOJITO FESTA 21.00.- Mojito jaia: karaokea, abeslariak...

Zapatua 11

KALEETAN KANTUZ 11.30.- Kaleetan Kantuz Eguna. Untzagako jubilatutuek etxean batzea. Hamarretakoa eta oroigarriak banatzea. Jarraian, kalejiraren hasiera (talde bitan banatuta, batzuk goiko auzoetan eta beste batzuk behealdean). **14.30.-** Talde biak batzea, udaltxeko arkupeetan. Abesti batzuk eskaini eta, jarraian, bazkaria (15.00ak aldera). **18.00.-** Amaiera.

Domeka 12

TXORI KANTARIAK 09.00.- Eibarko Hiria Txori Kantarien XII. Txapelketa: JJJ Memoriala. Arraten (euria egin ezker, Iturburun egingo da).

Astelehena 13

J.D. ARRATEREN BATZARRA 19.30.- J.D. Arrateren Ohiko Batzar Orokorra, azken denboraldiko kontuak onartzeko. **20.15.-** EzOhiko Batzar Orokorra, Zuzendaritza berria osatzeko Hauteskunde Batzordea osatzeko. Portalean.

Martitzena 14

GARAGARDO JAIA 19.00.- Eibar Rugby Taldearen Garagardo Jaia inaugurazioa. Untzagan.

Eguaztena 15

KONTZERTUA 19.00.- Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasturte amaierako kontzertua eta diploma banaketa: J.B. Gisasola Korua, Banda, Eibarko Gazteen Korua, Rock Taldea, Kamara-Orkestra, Triki Taldea, Folk-Pop taldea, bibolin-gitarra taldea eta akordeoi taldea. Coliseoan.

DANBORRADA 19.00.- Sanjuanetako umeen danborradarako entsegua (helduena 20.00etan hasiko da). Beistegi eraikinean (B. Sarasketa kalean).

Eguena 16

BILERA INFORMATIBOA 17.30.- Udan Gaztetan DBHko gazteentzat bilera informatiboa. Portalean (3. pisuan).

GARAGARDO JAIA 19.00.- Eibar Rugby Taldearen Garagardo Jaia. Untzagan.



DANBORRADA 19.00.- Amañako jaietarako, umeen danborradarako entsegua (helduena 20.00etan hasiko da). Amañako herri ikastetxean.

KONTZERTUA 20.00.- Isabel Laspiurren piano ikasleen emanaldia. Sarrera: Euro bi. Coliseoan.

BILERA 20.00.- Bilduren bilera irekia, datorren legealdirako lan taldeen berri emateko. Udaltxean (osoko bilkuren aretoan, 2. solairuan).


DENBORAPASAK

SUDOKUA

		2	8	5	7		
	7	6		2	5	3	
4			5	2			8
1							6
7			4	3			5
	3	9		4	8	2	
		1	7	8	6		

1	2	7	3	9	6	5	4	8
4	5	3	7	8	1	6	9	2
8	6	9	2	4	5	3	7	1
3	8	4	5	2	7	9	1	6
5	1	2	6	3	9	4	8	7
7	9	6	8	1	4	2	5	3
6	7	1	4	5	3	8	2	9
9	4	8	1	6	2	7	3	5
2	3	5	9	7	8	1	6	4

AURREKOAREN EMATZA



erakusketak

– Ekainaren 19ra arte

MARGO, MARRAZKI ETA ZERAMIKA UDAL ESKOLEN erakusketa. *Portalean.*

– Ekainean

“EQUIVALENCIAS” argazki erakusketa (Gasteizko Diseinu eta Arte Eskolako ikasleak. *Karrika tabernan.*

JOSE VILA-ren argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*

JOSE IGNACIO DE CASTRO-ren argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*



DANTZA:
Ipurua Dantza Garaikidea.
Ekainak 10, 20.30.

MUSIKA:

Musika Eskolakoak. Ekainak 15, 19.00.
Piano ikasleak. Ekainak 16, 20.00.

lehiaketak

– **Sanjuanak 2011 Marmitako txapelketa.**

Noiz: Ekainak 25, 11.30etan Untzagan. Informazioa eta izen-ematea: *Pegoran, ekainaren 17ra arte.*

ikastaroak

– **UEUko udako ikastaroak.**

Noiz eta non: Ekainaren 27tik uztailearen 1era eta uztailearen 11tik 15era (Eibarren), uztailearen 4tik 6ra (Baionan) eta uztailearen 18tik 20ra (Iruñean). Informazioa: www.ueu.org / 943821426.

bekak

– **Juan San Martin ikerketa beka.**

Gaia: Mendizaletasuna. Informazioa eta lanak entregatzea: Pegoran edo www.eibar.net helbidean. Irailaren 1etik urriaren 15era arte.

diru-laguntzak

– **Euskara ikasteko.**

Norentzat: 12 urte arteko seme-alaben guraso edo tutoreentzat, merkatarientzat, ostalarientzat, euskera plana duten enpresetako beharginentzat, 65 urte edo gehiago dituzten jubilatuentzat. Eskaerak: Abuztuaren 31a baino lehen, Pegoran.

farmaziak

10, barixakua

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

11, zapatua

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

12, domeka

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

13, astelehena

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

14, martitzena

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

15, eguaztena

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

16, eguena

EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)
GAUEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)

17, barixakua

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

telefono jakingarriak

SOS delai	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egutero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Eguireen-tarren kalean. Logela bi, egongela, sukaldia, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 665-729231.
– Pisua salgai Txaltxa-Zelai kalean. 3 logela, egongela, sukaldia, komun bi eta ganbara. Kalefakzioa. Garajea aukeran. Tel. 657-779650.
– Pisua salgai Mendaroko erdialdean. 80 m². 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Kanpora begira. 126.000 euro. Deitu astelehene-tik barixakura. Tel. 943-700690.
– Pisua salgai Juan Antonio Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukaldia, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. Tel. 610-603631.

1.2. Errentan

– Pisua alokagai Donostiako Erix pasealekuan, Itsasaurre auzoan, lorategiz inguratuta. Logela bi, egongela, sukaldia amerikarra eta komuna. Dena kanpora begira. Tel. 658-717754.
– Pisua alokagai Mutrikun. 3 logela eta komun bi. Eguzkitsua, terrazarekin eta inguru loretsuan. Dena kanpora begira. Tel. 943-201294 eta 645-728317.
– Logela alokagai. Etxetik independentea, intimitate osoarekin. Komuna dutzarekin, mikrouhinak eta hozkailua. Garaje plaza aukeran. Tel. 635-731831.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garajeak salgai Txontan, 6-8 zenbakietan. Prezio interesgarria. Deitu arratsaldean. Tel. 696-409217.

3.2. Errentan

– Garajea alokagai (marra) San Andres pasealekuan. Tel. 617-688311. Elena.
– Garaje txikia alokagai Urkizu inguruan. Tel. 617-688311. Elena.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauek PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 689-273664.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko interno edo gauzez. Tel. 628-874887.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 618-656020.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 943-254145 eta 695-804895.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak paseatzeko. Tel. 630-410724. Dora.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 699-232823.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 943-257396.
– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 608-147559.
– 33 urteko neska euskaldun eta arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Araututako titulazioa. Tel. 650-455685.
– Neska eskaintzen da nagusiak orduka zaintzeko. Tel. 608-820954 eta 689-658471.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 646-506777.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketak egiteko. Tel. 943-200994 eta 617-571210.
– Haur Hezkuntzako ikasle euskalduna eskaintzen da umeak urte guztian zaintzeko. Tel. 659-671428.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuetan ere.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

Tel. 646-358709.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 657-394754.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 665-301550.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka (10.00etatik 17-00etara). Tel. 680-969415.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, ziurtagiri sozio-sanitarioarekin. Esperientzia. Tel. 690-791689.
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 685-797220.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 605-129530.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.
– Neska arduratsua eskaintzen da 15.00etatik aurrera edo lan egiteko. Gauzez ere. Esperientzia. Tel. 699-706869.
– 45 urteko emakumea eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 605-862219.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Interna, externa edo orduka. Tel. 663-682150.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 651-836353.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 674-716699.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 648-603029.
– Produktorako tekniko eskaintzen da lantegia eramateko, ISO9001 jartzeko eta kontabilitatea eramateko. 21 urteko esperientzia. Tel. 638-925415.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 690-134485.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 695-182457.

4.2. Langile bila

– Neska euskalduna behar da andra nagusia zaintzeko, interna moduan. Tel. 652-774988.
– Sukaldari-laguntzailea behar da. Ezinbestekoa da autoa eta esperientzia. Tel. 679-950907.
– Emakume euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 616-801304.
– Kamarera/o behar da asteburu-eratarako Soraluzen. Tel. 670-541347.
– Kamarera/o euskalduna behar da Eibarko taberna batean. Tel. 685-738435. Aitor.
– Kamarera euskalduna behar da jatetxe baterako. Tel. 943-121262.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Ingeniari kimikoak klase partikularak emango litzuzke. Tel. 685-797220.
– Alemanierazko klaseak ematen ditut haur, gazte eta helduentzat. Tel. 647-275374.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Gasteizeko "Azkena Rock Festival"-erako sarrera bi salgai. Tel. 652-716135.
– Sehaska bi salgai, bikientzako egokiak. Edoskitze-burkoko opari. 180 euro. Tel. 669-346335.
– Baserritar trajea salgai. Estreintatu gabe eta abarketekin. Neskatilaren 5 tailakoa. 90 euro. Tel. 696-367250.

6.2. Eman

– Katakumeak oparitzen dira. Tel. 646-601923.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Umearen motorra laga genuen maiatzaren 28an Arraten. Pedro izena dauka idatzita. Horia eta urdin kolorekoa. Moltó markakoa. Jaso baduzu, deitu. Tel. 635-721528.
– Cimarron markako txamarra bakeroa galdu dut. Aurkitu baduzu, deitu. Tel. 626-887589.

6.4. Bestelakoak

– Bigarren eskuko bideo-kamara digitala behar da. Tel. 676-556739. Iñaki.

Seihilabeteko **BASIC** kontaktologia pack-a



Freshlens ukipen lenteak + sei hilabeterako likidoak

Pack-ean Freshlens hilero aldatzeko ukipen lenteak eta sei hilabetetan irauteko likidoa sartzen dira. Galdetu zure optiko optometristari zure beharretara hobeto egokituko den lente mota aukeratzeko orduan.

Ikusmen- eta entzumen-osasunean adituak
audifonoen egokitzapena eta entzumen-azterketak

Errebal, 14 20600 Eibar
GIPUZKOA 943 202 137
plazaola@naturaloptics.com



natural optics
PLAZAOLA

naturaloptics.com

> **klinika kortazar** **Gidabaimenak eta armabaimenak**

5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**




**AUTO
ESKOLA**

ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR



ORTODONTZIA IKUSIEZINAREKIN...



irribarrerik
onena
lortuko duzu!

...eta atera
egiezu etekina
hortz-zuriketan di-
tugun
**PROMOZIO
BEREZIEL.**

**Zatoz eta
KONTSULTA egin!**

**Badirelako
gauza batzuk
galtzea komeni
ez direnak...**

**IRAZABAL
KLINIKAn
txikienen
aho-hortzetako
prebentzioaren
alde egiten
dugu apustu.**



Egizuz PADI-ren azterketak.



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxebarria 12 - 1. Esk.
20.600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943 20 85 52